

**LACANIAR ALORREKO FORMAZIO
KLINIKOAK EUSKAL HERRIAN**

“JAKINMINA”

2021-2022 IKASTURTEA

21-2022

Koordinakuntza Batzordea

Mikel Plazaola, Aitor Guisasola, Teresa Velasco

Antolaketa Batzordea

Josune Aréjula, Bittori Bravo, Juan del Pozo,
Aitor Guisasola, Arkaitz Irazabal, Xabier Moñux,
Mikel Plazaola, Teresa Velasco, M^a Jesús Zabalo, Tereko Zaballa

Informazioa: jakinminaformacionesclinicas@gmail.com

Mikel Plazaola	943 431 637	mplazaolacloud@me.com
Aitor Guisasola	656 766 324	aitor.guisasola@gmail.com
Teresa Velasco	688 662 343	teresavelascoegia@gmail.com

JAKINMINA NIF: G 20712378

Eusko Lege Biltzarrak 2007ko ekainaren 12an onartutako 7/2007
legearen baitan AS/G/08720/2000 zenbakiz inskribatutako elkarte

WEB: www.formacionesclinicascampolacanianopaisvasco.org

“JAKINMINA”

LACANIAR ALORREKO FORMAZIO KLINIKOAK EUSKAL HERRIAN (FCCL)

Aurrez aurreko jarduerak lehenetsi arren, osasun-krisiagaitik hauek gauzatzea ezinezkoa balitz Zoom bidez egingo dira. Aurrez aurreko jardueretan Zoom bidez parte hartzea posiblea izango da.

Eskakizunekiko anitzak eta egokituak dauden esparruak dira. “Jakin nahi” batetan kokaturik daudenei zuzendua izatea da, gure ustetan, ardatz nagusia.

FCCL beraz, psikoanalisian interesaturik dagoen edonorentzako irakaskuntza esparru ireki bat da.

Bere baitan egiten den jarduerak psikoanalisian, gure esparruan, Freud eta Lacan hain zuzen ere, urtez urte prestakuntza sendo eta jarrai bat egitea gauzatzen du.

Honez gain Jakin-minak Donostiako San Juan de Dios Ospitale Psikiatrikoekin duen hitzarmenek, klinikarako hain oinarritzkoa den Erien Aurkezpena ahalbidetzen dute, non analistek, kontsulta pribatuetara hain maiz gerturatzen ez diren patologia sakonak aurrez-aurre ikus ditzaketen.

Bere xedean egiten diren kasu klinikoen azalpen eta erien aurkezpenetara azaldu ahal izateak, gure egungo ondoezen eta sintomen ulerkuntza, abiapuntu kliniko batetik egiteko aukera zehatza eskaintzen dute. Bere etikara iritsiaz, hau da, ondoren interpretatuko duen psikoanalista batengandik pazientea entzuna izatera, psikoanalisiak galdekatuak izango dira sintoma eta ondoeza hauek.

2021-2022 ikasturteko aktibitateak, psikoanalisiak gure gizarte eta garaiaren ondoezei ematen dien erantzunetan interesaturik dagoen edonori zuzendua daude, psikoanalista, psikologo, psikiatra, Osasun mentalean diharduten langileei, mediku, filosofo, irakasle, ikasle, eta orokorki, edozein jakintza arlotik, gaur egungo gizartearen adierazgarri diren aurrerakuntza zientifikoek, subjektuarengan duten eraginaren aurrean, psikoanalisiaren eskaintzan interesaturik dagoen edonorentzako.

Ez da beste jarduerarik, subjektua, bere eskaria adierazterakoan egi sintomatikoa adierazten duena bezala harturik, beregan hunkitzen duen inkontzientearen zergatira zuzenduko duenik.

Lacaniar Alorreko Formazio Klinikoak Euskal Herrian, 1998an hasi zenetik, jarraian, hogei eta hirugarren kurtsuari ekingo dio 2021-2022 ikasturtean, bertan bost modulu proposatzen direlarik.

MINTEGI TEORIKOA ETA KASU KLINIKOEN AZALPENA

Jacques Lacan

14. MINTEGIA (1966-1967)

FANTASMAREN LOGIKA (1. zatia. I-XII)

Luzaroan, sendabide analitikoaren praktika eta teorian, fantasma, oinarrizko fantasma, analisi baten erreferentiza izan da: hasiera, ibilbidea, gora-beherak, eta burutzea. Sintomatik abiatuta, Fantasmaren eraikuntza bezala formulatua, bukaeran bere trabeskatzera iritsi arte. *Fantasmaren logikak* ibilbide hau eusten duten oinharriak biltzen ditu.

Lacanengan ohikoa denez, izenburua, edukia eta praktikarekin artikulazioa, sarritan ez datoz bat. Baina, ohikoa denez ere, ibilbide teorikoaren amaieran azaltzen da nola jariatzen joan den ezaguera eta klinika oinarritzen duten kontzeptu nagusiak.

Mintegiaren hasieran Lacanek berak dio bere irakaspenaren ibilbidearen logikarekin artikulazio bat bilatzen ahaleginduko dela. Ibilbide honetan itzulera bat impositzen da, errepikapen bat den itzulera. Baina edozein errepikapen gisan, ez da berbera aurkitzen. Bilatzera zerk bultzatzen duen, eta nahiz berbera aurkitu ez, bilaketa berriro hastera zerk daraman, artikulatzea da asmoa.

Beraz, logika abiapuntu harturik, honako hau ulertzen ahalegintzea da: zerk bultzatzen duen bilaketa, bilatzen dena zer den, eta bilatzen zena ez izanik, zer den aurkitzen dena, eta berriro bilaketan abian jarritz, errepikapen batekin topo egina eta zein eragin duen klinika eta subjektuaren eraketan.

Bultzatzen duenagatik zatitutako Subjektu baten abordaia da. Finean ez den, objektu baten bilaketa da, baina unitate ilusio gisa, bere unibertsoa osatzen duen objektuaren bilaketa. Beraz, subjektua, bere zatitzea, Bestearekiko harremana, objektuarekikoa, honen funtzioa, objektu horren ontika, e.a.

Lacanen arabera, bere irakaskuntzaren ibilbidean iada landutako kontzeptuetara itzulera da, baina abordai berri batez.

Ibilbide hau jorratzen lagunduko duten puntuak proposatzen ditu: Fantasmaren logika, fantasmaren eta signifikantearen arteko egituren harremana, diskurtsoaren unibertsoa, idazketa eta azkenik pentsamendua, lingoaia eta inkontzientearen arteko freudiar harremana.

Begirada berria logikaz baliatzen da, logika matemaikoaz. Beraz, hasieran beharrezkoak egiten dira hainbat ingurapen: Fregeren aritmetika, Multzoen teoria eta legeak, Russel eta bere paradoxak tarteko; Booleren analisi matematikoa eta pentsamenduaren legearen ikerketa.

Logika matematikoa, filosofiak izateari buruz duen ideiarekin uztartzen du, bereziki Descartesengan izana eta ez izana, Espinozari ere aipamenak eginaz.

Ez dira falta klinikara erreferentziak, non eraikuntza teorikoa, egitura kliniko klasikoekin egiaztatzen ahalegintzea dagoen.

Bai mintegi teorikoa irakasteko, nahiz Euskal Herriko kideek aurkeztutako kasu klinikoak lantzeko Bartzelona, Paris, Madril, Tarragona, Vigo, Asturias, Donostia eta Pabeko psikoanalisten partaidetza dugu. Psikoanalisiaren irakaskuntzan eta besterentzat adituak diren psikoanalistak.

Egutegia

2021eko urriak 09

Bernard Nomine. Psikanalista Paben.
Sarrera eta Igo kapitulua
Kasu aurkezle: Garazi Muguruza
Koordinatzaile: Mikel Plazaola

2021eko azaroak 06

Rithée Cevasco. Psikoanalista Barcelonan eta Parisen.
II. kapitulua
Kasu aurkezle: Josefina Garcia de Eulate
Koordinatzaile: Arkaitz Irazabal

2021eko abenduak 11

M^a Jesús Diaz. Psikoanalista Asturiasen.
III. Eta IV. kapituluak
Kasu aurkezle: M^a Jesus Zabalo
Koordinatzaile: Josune Arejula

2022ko urtarrilak 15

Juan del Pozo. Psikoanalista Donostian.
V. eta VI. kapituluak
Kasu aurkezle: Tania Navarro
Koordinatzaile: Tereko Zaballa

2022ko otsailak 19

Ramon Miralpeix. Psikoanalista Bartzelonan.
VII. eta VIII. kapituluak
Kasu aurkezle: Vanesa Rodriguez
Koordinatzaile: Xabier Moñux

2022ko martxoak 12

Camila Vidal. Psikoanalista Vigon.
IX. eta X. kapituluak
Kasu aurkezle: Xabier Moñux
Koordinatzaile: M^a Jesus Zabalo

2022ko apirilak 30

Manel Rebollo. Psikoanalista Tarragonan.
XI. kapitulua
Kasu aurkezle: Elisabeth Irureta
Koordinatzaile: Teresa Velasco

2022ko maiatzak 21

Luis Izcovich. Psikoanalista Parisen.
XII. kapitulua eta itxiera
Kasu aurkezle: Mirta Eiroa
Koordinatzaile: Aitor Guisasola

Non

San Sebastian Hotela. Eguzki aretoa + Zoom
Zumalakarregi ibilbidea 20. Donostia

Ordutegia

10:00etatik 14:00tara

(Osasun egoera dela eta, saioaren bat ezin bada aurrez aurre egin, Zoom bidez burutuko da)

Mintegiaren saio bakoitzari dagozkion gaien aldez aurreko irakurketa egiteari ekingo zaio. (Lacan, J. (1966). 14. liburua. Fantasmaren logika. *El seminario de Jacques Lacan*. (Barneko dokumentua Jakinminak argitaratuta). 1go zatia (I-XII kapituluak).

Egutegia

2021eko urriak 5	2022ko urtarrilak 11
2021eko azaroak 2	2022ko urtarrilak 25
2021eko azaroak 16	2022ko otsailak 8
2021eko azaroak 30	2022ko otsailak 22
2021eko abenduak 14	2022ko martxoak 8
	2022ko apirilak 26
	2022ko maiatzak 17

Non

Euskal Herriko Foro Psikoanalitikoaren egoitzan + Zoom
Okendo Kalea 5, 2. C. Donostia

Noiz

Asteartetan 20:00etaik a 21:30etara

Koordinatzaileak

Mikel Plazaola, Teresa Velasco, Maria Jesus Zabalo

Osasun egoeraren arabera erien aurkezpen saioaren bat burutzeko aukera balego aldeztu aurretik jakinaraziko dizuegu.

Non

Donostiako San Juan de Dios Ospitalean

Noiz

Ostiraletan 18:00etatik 20:00tara

Koordinatzailea

Tereko Zaballa

KLINIKA PSIKOANALITIKORAKO SARRERA-IKASTAROA

Zenbat aldiz entzuten edo irakurtzen dugun, fantasmaren zeharkatzea, fantasmaren eraikuntza, fantasma histerikoa, perbertsoa... Baina zer da fantasma? Zer lotura du ibilbide analitikoarekin, egitura klinikoeekin?

Teoria psikoanalitiko osoa zeharkatzen duen kontzeptua da, Freudetik Lacanera. Ikasturte honetan Freuden lehenengo planteamenduetatik hasita, sedukzio eta traumaren teoria, fantasiak antolaketa psikiko moduan ulertze planteamenduraino landuko dugu. Sor diezazkigukeen galderei erantzuten saiatuko gara: zein da ametsa eta fantasiaren arteko erlazioa edo desberdintasuna? Zer lekua dute fantasia horiek sintomen eraketan? Zertan bereizten dira gatazka edipikoa eta fantasia? Fantasia eta desira inkonzientearen artean, zein erlazio dago?

Lacanen ekarpena ere landuko dugu Freudi buruz egiten duen irakurketatik abiatuta. Lacanek oinarritzko fantasmari buruz hitz egingo du eta logikarekin artikulatuz fantasmaren formula eraikiko du. Fantasma Bestearen desiraren enigmaren erantzun gisa. Freuden planteamendutik bereizten da? Zer ekarpen egiten du Lacanek fantasmari buruz?

Beraz, landuko ditugun testuek sorrarazten dizkiguten galderetatik abiatuta planteatzen dugu ikasturte hau, erantzun posibleak eraikitzen joan ahal izateko.

Egutegia

2021eko urriak 20

2022ko urtarrilak 12

2021eko azaroak 17

2022ko otsailak 16

2021eko abenduak 15

2022ko martxoak 16

2022ko apirilak 27

2022ko maiatzak 25

Non

Euskal Herriko Foro Psikoanalitikoaren egoitzan + Zoom
Okendo kalea 5, 2. C. Donostia

Noiz

Asteazkenetan 20:00etatik 21:30etara

Koordinatzaileak

Aitor Guisasola, Mikel Plazaola eta Teresa Velasco

Modernitatearen subjektua. Descartes, Spinoza, Kant eta Hegel

Aurtengo kurtsoan subjektibitate modernoaren eboluzioa jorratuko dugu Descartesetik hasi eta, Spinoza, Kant eta Hegeleraino.

Modernitatearen ezaugarri garrantzitsuenetako bat zientziaren subjektua erakitzea da. Descartesek "cogitoea", **bere baitan izate legez** pentsatzen den subjektua, zeina bere errepresentazioak bermatuko lituzkeen. Beste absolutu baten fantasian (arrazoizko ilusioan) oinarrituta dagoen.

Subjektu hau, Lacanen bidetik, psikoanalisiak nola eraldatzen duen ikusi ahal izango dugu, bere irakaskuntzan zehar autore hauetaz baliatuz.

Egutegia

2021eko urriak 19	2022ko urtarrilak 18
2021eko azaroak 23	2022ko otsailak 15
2021eko abenduak 21	2022ko martxoak 15
	2022ko apirilak 5
	2022ko maiatzak 24

Non

Euskal Herriko Foro Psikoanalitikoaren egoitzan + Zoom
Okendo Kalea 5, 2. C. Donostia

Noiz

Asteartetan 20:00etatik 21:30etara

Koordinatzaileak

Angel Murias eta Xabier Oñativia

Lacaniar Alorreko Formazio Klinikoen Jardunaldi bateratua

XXI. Jardunaldi bateratua Bartzelonan burutuko dira, 2022ko maiatzaren 28an. Bertan, ondorengo Kolegio Klinikoei hartuko dute parte: ACCEP Associació Catalana per a la Clínica i l'Ensenyament de la Psicoanàlisi, Galiziako Elkarte Psikoanalitikoak Santiago/Vigo Foroa, Associació de Clínica Psicoanalítica de Tarragona (ACPT), Madrildgo Kolegio Psikoanalitikoak, Col-legi de Clínica Psicoanalítica de Valencia, Lacaniar Alorreko Formazio Klinikokoak/Asturiasko Foro Psikoanalitikoak, Jakin-mina Lacaniar Alorreko Formazio Klinikokoak Euskal Herrian, Seminari de Psicoanàlisi de Tarragona.

Jardunaldirako inskribapenak salneurri murrizketa izango du Formazio Klinikoko ikasle eta irakasleentzat.